

# MIÑDUN....



(NERE BIOTZEKO ADISKIDE ON FELIX MICHELENA, SENDAGIÑ ADITUARI)

Nere gogokoa joan zan; nere uste guztia  
Jaungoikoagan. (Hier.; thren. 17, V. 17)

. . . . .

Begira geunden aldakaitz<sup>1</sup> mardul zenbait alboan,  
Usu alere, zedakartzien abadar bati,  
Begira geunden, ¡zér isirua! lirañ, egoki,  
Gazte aziya Arbide–tako basa-soroan.


Udaberriko zelai-larien asmazioak,  
Egiten ziran, ¿nola ura ikus ezker?  
Zer uda ona, zér udazkena, genion, gero...  
¡Zér beste, baño, gure Jaunaren pensarioak!

Iñill gaudezen; gure Jainkoa, zure gogoa  
Beñepeñean bedeinkatua izan dedilla,  
Entzunik gaude zure naiaren aztarn-ezkill...  
Askida: iguzu, gure biotza berdiñagoa.

Zure eskuan utzitzen degu, guzti-guztia:  
Zegiguzuna ken izandu nai baldiñ badezu,  
Ordañatzeko almena berdiñ gelditzen zaitzu  
Ta onen zaiguna, egingo-uzula daukagu ustia.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

1891-ko Buruillean.



(1) Retoño.